

Ziklo — — munizipalista berrirako — — iparra

UDALGINTZA
HERRIGILEAREN
ARNASA GARAIKO
ERRONKA KOLOSALEN
AURREAN

2023/27
legegintzaldia

Hamarraldi erabakigarri bat

- Aldaketa-aroan gaudela esaten da, baina aldaketak hain dira handiak eta hain azkar gertatzen ari dira, ezen esan baitaiteke aro aldaketa baten aurrean gaudela. Prospektibak dio aldaketa gehiago eta handiagoak gertatuko direla hurrengo hogeitun urteetan azken ehunetan baino.
- Merkatu askean oinarritutako eta hazkunde esponentzialaren dogma ukaezinean bermatutako paradigma ekonomikoak azken 200 urteetako desberdintasun sozial handienak sortu ditu, eta planetaren muga biofisikoekin talka egin du. Gizateriaren historian aurrekaririk ez duen une batean gaude: larrialdi klimatikoak bizitzaren baldintza materialak suntsitzeko arriskua dakar, eta energia baliabide intentsibo merkeen eta materialen agortzeak eragindako energia krisiak potentzial suntsitzailea duen gerra agertoki batera ekarri gaitu.
- Gizateriaren historiaren une erabakigarri honen aurrean, premiazkoa da herri narratiba indartsu bat eraikitzea, Euskal Herria erabakitzeko eskubidearen jabe den subjektu politiko gisa aitortzen dugunon arteko izendatzaile komun gisa. Zoru komun bat marrazten duen narratiba bat, garai historiko honetan kokatzeko modu bat egituratuko duena, herri ikuspegi argi bat emango diguna eta euskal politikagintza autozentratu bat ezarriko duena.
- Gaur egun, errealismo, erantzukizun eta eraginkortasun politikoko ariketa bat egiteak honako ondorioetara garamatza: (i) norabide aldaketa bat behar dugu; (ii) norabide hori euskal gizarte osoak, eragile sozial, ekonomiko, akademiko, politiko eta kulturelek adostu eta gidatu behar dute modu kooperatiboan; eta (iii) euskal gizartearen beraren potentzialtasuna eta indar eraldatzailea aktibatzea da arrakastaren berme bakarra.

Lidergo berriak

- Krisi politikoak auzitan jarri ditu mendebaldeko demokrazia ordezkatzailleak. Politika konbentzionalaren akidura garaiak bizi ditugu. Gainera, egungo erronka sozialen konplexutasunak agerian utzi ditu top-down ekintza instituzionalaren mugak. Funtsezkoa da lidergo modu berriak aktibatzea, gizarte zibileko eragileen eta erakundeen arteko lankidetzak formulak egituratu eta izaera komunitarioko instituzionalitate berriak sustatzeko gai izango direnak.
- Horri dagokionez, azpimarratu behar da kolaboratzea eta kooperatzea ez direla zehazki gauza bera. Kooperatzeak esan nahi du hierarkikoak ez diren harreman espazioak eraikitzea, parte-hartze politikoaren eskalako maila gorenetara hurbiltzea. Gauza bat da gardentasunez jokatu eta gizarteari erabakien berri ematea (eta, horretarako, entzutea, komunikatzea, kontsultatzea); beste gauza bat da gizarteak erabakietan parte hartzeko baliabideak eskaintzea (kudeaketa instituzionalean herritarren lankidetzarako bideak irekitzea); eta beste gauza bat gizarteak erabakien parte egitea, erabakiek eskatzen duten kudeaketa politikoaren dimentsio osoan (izaera desberdineko eragileen arteko kooperazio espazioak artikulatzea). Udalgintza herrigilearen kontzeptualizazioan parte-hartze eredu honetan sakondu genuen.
- Agerikoa da eraldaketa ekosozialarekin edota klase eta jatorriगतiko segregazioarekin lotutako prozesu desberdinek, adibidez, ez dutela kudeaketa politiko demokratikorik izaera kooperatiboko prozesu komunitarioak artikulatuz ez bada. Gizarte konplexuetan bizi gara eta erronka sozial kolosalak ditugu parez pare. Prospektibaren arabera, honako joerak larriagotu egingo dira datozen lau urteetan: krisi ekosoziala eta krisi energetikoa, migrazioen areagotzea, populazioaren zahartzea, gizarte dualizazioa, globalizazio digitala, landa eremuaren despopulazioa, Garai zailak baina aldi berean aukerez beteak bizi egokitu zaigu. Hori dela eta, komunitategintza indartsu baten aldeko apustu sendoa egiteko unea da.

Eraikuntza komunitarioaren bidea

- Udal politika froga-banku on bat da zentzu horretan. Euskal Eredua proposamenean identifikatu genituen bost herri erronka estrategikoei boterea hartzeko estrategia bat eskatzen dute; izan ere, eraikuntza nazionalerako edozein estrategia estatu eraikuntzaren zerbitzura jarriko diren ahalik eta botere espazio gehien behar ditu eskura. Baina, aldi berean, eraikuntza nazionalak, bigarren bottom-up hanka bat ere behar du, boterea banatu egingo duena, horretarako instituzionaltasun berriak sortuz: gure tradizio municipalistarekin lotura argia duen eraikuntza komunitarioaren bidea, hain zuzen ere.
- Gaur, segur aski, udalgintza herrigilearen eskutik datorren bultzada komunitario berri baten aurrean gaude. Egiten ari garenaz eta subiranotasunaren aldeko estrategian udalgintzak duen potentzialaz jabetzea falta zaigu. Gaur egun tokiko energia komunitate bat egituratzeak bere garaian ikastola bat antolatzeak izan zezakeenaren antzeko balio politikoa du, adibidez. EH Bilduren eta EH Bairen arteko aliantzak osatzen duen mugimendu municipalista nazional honek eraikuntza nazionalaren zerbitzura dagoen bultzada komunitario berri horren katalizatzaile behar du.
- Hiriguneek lehen mailako zeregina dute eraldaketa horretan. Espazio urbanoak gero eta kalteberagoak dira krisi global handien aurrean. Izan ere, hiriguneetan metatzen dira neoliberalismoaren joera nagusiak eta horien ondorio gordinak. Baina, hain zuzen horregatik, hiriguneak, aldi berean, eraldaketa-motor izan daitezke. Europako esperientzia aurreratuenen ispiluan begiratuz, euskal hiriburuak eraikuntza nazionalaren hauspo bilakatzeko anbizioa duen municipalismoa da gurea.

Konponbide berriak

- Herri bakoitzean tokiko prospektiba estrategikoko azterketa bat egin dugu azken hilabeteetan, intuizioz bada ere, gaurtik bertatik aktibatu behar ditugun funtsezko prozesuak identifikatze aldera, hurrengo urteetarako espero den fenomeno globalen larriagotzearen aurrean, epe ertainean erresilientzia irabazteko bideen bila. Une batez begirada altxatzea inportantea da, datorren munduaz jabetzeko eta geure buruak garai historiko honi aurre egiteko prestatzeko.
- Aro aldaketa bat da honako hau, konplexutasunez betetako aro bat, aldi berean aukera berriei ateak irekitzen dizkiena. Gero eta konplexuagoak diren eta, ondorioz, irtenbide konplexuak eskatzen dituzten gizarteen aurrean gaude. Desberdintasun sozialek, kultura aniztasunak, identitate aniztasunak, krisi ekologikoak edo biztanleria desorekak, baliabide ekonomikoen berrantolaketa, desberdinen arteko bizikidetzak, ingurumenarekiko harreman berri bat edota despopulazio arriskuan dauden udalerrietako herritarren ongizateari mesede egingo dioten zeharkako politikak eskatzen dituzte, inoiz baino gehiago.
- Bizi dugun garaiaz jabetuta, zera definitzeko unea da: Euskal Eredua proposamenean jasotako erronka estrategikoei zein eremutan eta nola (proiektu material zehatzak) egin diezaiekeen ekarpen kualitatibo bat udalgintza herrigileak hurrengo legegintzaldian. Hori da dokumentu honetan egin den ariketa. Eta ondoko helburu honekin egin dugu: EH Bilduk mugimendu municipalista gisa duen gaitasun politiko guztia askatu dezan estrategia subiranista dualaren bigarren hankaren garabidean.

Konponbide berriak

- Iazko maiatzean EH Bilduren lehen Konferentzia Municipalista ospatu genuen. Bertan, nazioarteko hainbat esperientzia ezagutzeaz batera, euskal udalgintzaren erronkez gogoetatu genuen. Amaierako ekitaldian EH Bildu mugimendu municipalista gisa antolatzeko konpromisoa hartu genuen, *Intxaurrendoa* manifestu fundazionala aurkeztuz.
- Orain, datozen lau urteetarako bide-orria definitzeko garaia da. Konferentzia Municipalistan jasotakoarekin, azken urte luzeetako esperientzia aztertuz eta udalgintza herrigilearen kontzeptualizazio lanetan ikasitakoarekin, mugimendu municipalistaren programa definitzeko moduan gaude: datorren legegintzaldian herri erronka estrategikoei aurre egiteko udalgintza egitasmo gakoak zeintzuk diren.
- Proposamen honek balio behar du tokian toki osatuko ditugun herri programen iparrorratz gisa. Beti ere, tokian tokiko errealitate konkretuak aginduko du zer den non posible eta nola. Jarraian aurkezten dugun hau mugimendu municipalistaren oinarri programatikoa da, ez du esan nahi, inolaz ere, herri guztietan egitasmo horiek guztiak garatuko ditugunik (ez eta lekuan leku beste hainbat egitasmo garatuko ez ditugunik), baizik eta, Euskal Herriko leku askotan egitasmo hauek modu sistematikoan garatuko balira, EH Bilduk ekarpen kualitatibo garrantzitsua egingo liokeela Euskal Herriaren eraikuntza nazionalari.
- Hurrengo legegintzaldiari begira, 17 egitasmo estrategiko identifikatu ditugu eta bost erronka nagusiren arabera antolatu, ziklo municipalista berrirako iparra osatuz.

Ziklo municipalista berrirako iparra


UDALGINTZAREN ARNASA GARAIKO
ERRONKA KOLOSALEN AURREAN

Ekologia

Erronka ekosoziala larrialdi klimatikoaren, biodibertsitatearen krisiaren eta krisi energetikoaren garaian.

Zaintza

Zaintzaren erronka gizartearen zahartzearen eta ehundura komunitarioen ahultzearen aurrean.



Demokrazia

Erronka demokratikoa demokrazia liberalaren agorpenaren, krisi politikoaren eta eskuin muturraren gorakadaren aurrean.

Berdintasuna

Berdintasunaren erronka desberdintasun sozialen areagotzearen, migrazioaren gorakadaren eta sexu-genero zapalkuntzaren aurrean.

Kultura

Euskalduntzearen eta euskal kulturaren transmisioaren erronka digitalizazioaren aro globalean.

Ziklo municipalista berrirako iparra

UDALGINTZAREN ARNASA GARAIKO
ERRONKA KOLOSALEN AURREAN

Erronka demokratikoa

1. Gobernantza kooperatiboa
2. Gobernantza feminista
3. Memoria historikoa

Berdintasunaren erronka

4. Babes egitura sozialak
5. Babes egitura komunitarioak
6. Etxebizitza politika
7. Emakume etxeak

Erronka ekosoziala

8. Energia komunitate lokalak
9. Politika klimatikoak
10. Jantoki kolektiboak
11. Ekonomia lokala
12. Ekonomia zirkularra

Zaintzaren erronka

13. Zaintza sare komunitarioak
14. Zaintzaileen zaintza

Erronka kulturala

15. Kultur bilguneen sarea
16. Hezkuntza ekosistema kooperatiboak
17. Euskararen arnaguneak

Erronka --- demokratikoa

Demokrazia liberalaren tresnak ez dira aski izango erronka sozial kolosalei aurre egiteko. Bestalde, krisi politikoaren aurrean eskuin muturraren gorakada bizi dugu, parez pare izango dugu arazo konplexuei “irtenbide” errazak proposatuz. Datozen lau urteetan sakontze demokratikoa izango da erronka politiko handietako bat, desesperantzari esperantzak irabaziko badio eta aldaketa aurrerazaleek bidea egingo badute. Gizarte sektore zabalak eraldaketa prozesuetara lotu eta garai honi aurre egiteko ahaldundu beharko ditugu. Tokiko eskala jokaleku aproposa da zentzu horretan.

Gobernantza kooperatiboa

Erroka demokratikoa

DEFINIZIOA

Gobernantza kooperatiboa da gure egiteko modua, udalgintza herrigilearen kontzeptualizazioan jaso genuenez. Eredu horren ezaugarri nagusia da administrazioa eta herritarrak barne hartzen dituzten erabakiguneen eraikuntza. Horren helburua udalerraren etorkizuna komunitatean eraiki ahal izateko erabakitze gaitasuna banatzea da.

Hamarkada honetan aurkezten zaizkigun erroka globalek ezinbestean eskatzen dute izaera ezberdineko eragileen arteko kooperazio espazioak artikulatzea. Zer egin nahi den bezain inportantea da nola egin, prozesua herritarrak ahaldu eta komunitatea josteko bidea baita. Honek ezaugarritzen du gure udalgintza, herritarrekin batera eraiki nahi dugu etorkizuna.

ZERTARAKO POLITIKOA

Gobernantza kooperatiboan jauzi bat emateko premia dugu datorren ziklo municipalistan. Izan ere, esku artean ditugun erroka sozial konplexuek inoiz baino gehiago eskatuko digute eraldaketa prozesuak herritarrekin batera pentsatu eta gauzatzea. Demokrazia liberalaren krisiak herritarren eta instituzioen arteko arrakala areagotu du. Gure udalgintzak balio behar du ez solik distantzia hori laburtzeko, baizik, baita ere, herritarrak ahalduzko, komunitatea josteko eta kohesio soziala sendotzeko.

Gobernantza eredu honek egitura komunitarioak sortzea bilatu behar du ahal den kasuetan. Herriaren etorkizuna komunitatean (horizontalean) erabakitze guneak.

Horren adibide puntako dira energia komunitate lokalak. Udalaren eta gizarte zibilaren arteko hibridazioa maila bat gorago eramatea da hori, egitura komunitario antolatu egonkorak sortuz, zeinetan herritarrak autoantolatzen diren eta, kasu honetan, beraien kontsumo energetikoen jabe egiten diren, modu kooperatiboan.

Erreferentziako esperientziak

Hernani

Herri egitasmoa da, planifikazio demokratikoaren eta udal sustenguari elkarrekintzaz eraiki nahi dena. Herria egiteko modua. Herritarren parte-hartzearen eta udalak herritarrekin zein eragileekin duen harreman eredu birformulatzen duena.

Bakio

Herritarra, udal zerbitzuen kontsumitzaile eta bezero izatetik, komunitatearen parte aktibo izatera bideratu dute: erabakiak hartzeko espazioak zabaldu dituzte, desberdinen arteko elkarriketak sustatuz. Bi ardatz ditu oinarri: lurraldearen beraren beharrianak zeintzuk diren ulertzea eta komunitatearen beharrianak zeintzuk diren aditzea.

Bestalde, trantsizio energetikoa azeleratu egingo da datozen lau urteetan, eta horrek ezinbestez eskatuko du gobernantza kooperatiboaren ariketa sakon bat. Izan ere, gure lurraldearen zaintza zein herritarren ongizatea zeharkatuko du prozesu honek, krisi energetikoak estutuko gaituen aldi berean. EH Bilduren energia estrategian proposatzen diren eskualde mailako deliberazio prozesuak aktibatzeak momentua izango da hurrengo legegintzaldiko lehen zatia. Horretarako, udalen papera funtsezkoa izango da, eta eskualde mailako gobernantza egiturak probestu beharko dira eskualde bakoitzak egin beharreko trantsizio energetikoa pentsatzeko deliberazio prozesu sakonak garatzeko orduan. Energia sektorearen demokratizazioa, lurraldearen birgaitze ekologikoa, gure kontsumo ohiturak aldatzeko eraldaketa prozesuak, mugikortasun jasangarri baterako politika publikoak, elikadura sistema propio sendoagoa, etb. Hori dena eta gehiago da trantsizio energetikoak ekarri behar duena, dokumentu honetan planteatzen diren lanketekin batera: eraldaketa ekosozialaren palanka izango diren prozesu herritarrak aktibatzeaz ari gara, beraz.

Gobernantza feminista

Erroka demokratikoa

DEFINIZIOA

Gobernantza kooperatiboa botere politikoa banatzea da finean. Eragile komunitario guztiak (instituzionalak, sozialak eta ekonomikoak) elkarrekin arituko diren gobernantza marko bat eraikitzea eskatzen du. Ekosistema komunitario guztia elkarrekintzan jarri eta bisio partekatua garatzeko espazioa eta denbora hartzea, metodologia eta ebaluazio sistema adostuen bidez eta epe ertain-luzeko ikuspegia lehenetsiz. Udala eragile bat gehiago da lankidetzaren eremu ez-hierarkiko honetan, non ez dagoen prozesu zuzendaritza gune formal bakarrik. Gobernantza honek erdigunean jarriko ditu emakumeak*, emakumeen ahaldunderako eta eraldaketa feministarako baliogarri frogatuz. Praktika feminista erabakiguneetan ezartzeaz ari gara.

ZERTARAKO POLITIKOA

Eraldaketa feministarako eta emakumeen boteretzarako gakoetako bat botere politikoren banaketa da. Botere politikoa sare komunitarioen esku jartzen denean eta parte-hartze prozesuetan normalean kanpo edo bazterrean gelditzen diren kolektibo azpiratuak bisibilizatu eta erdigunera ekartzen direnean, eraldaketa feministak baldintzak irabazten ditu. Gobernantza kooperatiboak esperimentazio feministarako aukera irekitzen du hiru faseetako bakoitzean: Entzuketa fasean emakumei propio arreta jarri, interpretazio eta kosorkuntza fasean, talde ariketa mixtoez gain, emakumeen arteko talde ariketak eginez eta bien emaitzak gurutzatuz; eta ebaluaketan, adibidez, emakumeen ahalduntzea neur dezaketen adierazle kualitatiboak definituz.

Hurrengo legegintzaldia garai egokia izan daiteke, baldintzak ematen diren herriren batzuetan, gobernantza feministaren esperimentazio aurreratuak egiteko.

Erreferentziazko esperientziak

[Bakio](#)

Berdintasun kontseilu herritarra emakumeen parte-hartzea sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzea helburu duten politika publiko zein egitasmoen inguruan hausnartu, hauek landu eta erabakitzeko espazio horizontala da.

Memoria historikoa

Erroka demokratikoa

DEFINIZIOA

Altxamendu frankistatik gaur egunera arte gure herrian motibazio politikoagatik gertatu diren giza eskubideen urraketak aztertu eta errekonozitzeko egitasmoak sustatzeaz ari gara, instituzioek, herritarrek eta elkarrekin batera eraikiak.

Gerran eraildako pertsonen gorpuen deshobiratzea, gertaera errepresiboak ezagutaraztea, lubakiak berreskuratzea, erakusketak, testigantzak jasotzea, etb. Azken finean, komunitateak berak herriaren historia kontatzea ahalbidetzeko ekimen guztiak.

ZERTARAKO POLITIKOA

Historia zientzia gisa definitzen da, baina historiaren kontakizunak zientzia izateari baino, herrien boteretzeko asmoei erantzuten die. Historia irabazleek kontatzen dutela esan ohi da, galtzaileek errepresioaren aurpegi gordinena sufritzen duten bitartean. Eta sarri, historia kontatzeko memoria hil egiten da. Lan ildo honen helburua aurrera egin ahal izateko herri baten memoria bizirik mantentzea da. Galtzaile eta irabazle paperak banatzen dituen historiaren kontakizuna gainditzea. Biktimen errekonozimendu eta erreparazioarako bidean urratsak ematea. Soilik honela egingo baitu herri batek bizikidetzan aurrera.

Bizikidetzaren eraikitzen laguntzeaz gain, Euskal Herriaren biziraupena bermatzen ere lagunduko digu memoria historikoa berreskuratzeak, historia hurbilean, batik bat gerra frankista eta frankismo garaian, bai eta gatazka politikoaren ondorengo aro garaikidean, gertaturiko pasarte anker eta gordinenak errekonozitzeak gure herriaren asimilazioaren eta ukapenaren aurka egitea dakarrelako.

Erreferentziako esperientziak

Lemoa

1936tik 1977ra bitarteko udalerriko memoria historikoa eta demokraziaren eta askatasunaren aldeko borroka berreskuratu eta tokiko ikerketa sustatzeko lan handia egin du. Gazteekin eta ikastetxeekin batera landu dute gaia: ondarea berreskuratu, liburuak, ikusentzunezkoak, etb.

Urduña

Gerra frankistako kartzelan fusilatutakoen gorpuzkiak berreskuratzeak ekimena Aranzadi elkarrekin batera. Sartaguda: Oroimen historikoa herri bizitzaren erdigunean jarri zuten Alargunen Herri Elkarrekin eta herriko hitorialari batekin garatutako hainbat egitasmoren bidez, Oroimenaren Ibilbidea, sentsibilizazioa ikastetxeetan, etb.

Berdintasunaren erronka

Neoliberalismoa demokrazia pribatizatzen eta azken 200 urteetako desberdintasun sozial handienak sortzen ari da. Dualizazio sozialak gizarte kohesioa hausten du eta, gainera, baldintza okerragoetan jartzen gaitu egin beharreko trantsizioei begira. Aberastasunaren banaketarik gabe, justizia sozialik gabe, planetaren muga biofisikoetan sartzen diren gizarteetarako trantsizioak lurzoru ongarrিতua dira eskuin muturrarentzat, zeinak azken urteetan indarra hartu duten mugimendu emantzipatzaileen aurka egingo duen bere indar guztiarekin. Desberdintasunen areagotzeak gure komunitateak zeharkatuko ditu eta gure udalgintzaren ipar nagusietakoa izan behar da justizia sozialaren aldeko borroka eta kohesio soziala ehuntzea.

Babes egitura sozialak

Berdintasunaren erronka

DEFINIZIOA

Asistentzialismo hutsetik harago, gure herrietan baditugu proposamen eta ekimenak gizartearen bazterrean gelditzeko arriskuan dauden pertsona horiek erdigunera ekarri eta etorkizun duin bat eskaintzeko. Garai polarizatu hauetan, politika sozial eta berdinzaleetan aurrera egiteko gakoa inbertsioa da.

Udal batek eman dezakeen babes soziala dirulaguntzen kudeaketa baino harago doa, egoera zaugarrian dauden pertsonen bizitza duin baterako aukera eskaini behar diegu. Pertsona zaugarrienei zuzendutako eta beraiekin batera garatutako programa integralak martxan jarri, inklusio sozialari ateak zabalduko dizkioten eremu ezberdinak landuz (formazioa, lan aukerak, garapen pertsonala, harreman sozialak, osasun egoera, etb.).

ZERTARAKO POLITIKOA

Norabidea aldatu beharra daukagu. Azken hamarkadetan, eta batez ere 2008ko krisiaz geroztik, desberdintasun sozialak neurrigabe areagotu dira. Gure babes sisteman artatutako pertsonen artean, pobreziatik irteten ez ziren pertsonen pobrezia-atalaserekiko distantzia % 16,1eko zen 2016ean; 2018an % 20,6koa zen distantzia hori eta babes sisteman ez artatutako pertsonen artean dinamika berdintsua ematen da. Hau da, jasotzen dituzten prestazio eta laguntzen zenbatekoak izoztu edo/eta murrizteak pobrezia-atalasatik urrundu ditu milaka herritar.

Tendentzia hau azken hilabeteetako prezioen garestitzeagatik izugarri areagotu da. Oinarrizko beharrak asetzeko zailtasunak dituzten pertsonen kopurua gora doa, baita haur pobrezia zein oinordetzan jasotako pobrezia; eta seme-alabak izatea pobrezia faktorea dela diote azterketek. Etorkizuna haustura sozialik gabekoa izan dadin babes kolektiborako mekanismoak indartu beharra dago.

Erreferentziazko esperientziak

Errenteria

Inbertsio soziala eta inklusio programa. Biztanleko inbertsio sozialera aurrekontuetan bideratzen duen kopurua Hego Euskal Herriko altuenetakoa da. Jatorri ezberdinetako komunitateekin inklusioa landu eta bizikidetzak gaiak bideratzeko programa garatu dute, baita ere.

Zuia

Inklusiorako programa integrala. Kale hezitzaileen bidez, hezkuntza, aisia eta kultura, familia, osasun eta gizarte zerbitzuen eremua koordinatuz, gazteen egoeran esku hartzeko programa ere garatu dute.

Izan ere, Euskal Errepublika berdinzalea ortzimugan, gure herrian pertsona guztiek bizitza duin bat garatzeko eskubidea bermatu behar dugu, beharrezkoa da euskal gizarte osoari ongizatearen oinarri materialak bermatzea. Komunitate bateko partaide izateko aukerak mugak izan ohi ditu sarri, ez soilik kulturalak, egoera sozioekonomikoak ere mugak sortzen ditu. Komunitate sendo bat eraikitzeko, ziurgabetasun aro honetan, egoera zaugarrienean dauden pertsonen etorkizunerako aukerak eta ziurtasunak eskaini behar dizkiegu, Hau guztia kontziente izanik, beti ere, udal mailan ditugun baliabide eta eskumenak oso mugatuak direla.

Babes egitura komunitarioak

Berdintasunaren erronka

DEFINIZIOA

Inbertsio sozial handiak ere bere mugak izango ditu datozen urteetan. Izan ere, migrazioen gorakadarekin eta desberdintasun sozialen areagotzearekin, dualizazio soziala arrisku erreala da. Hori dela eta, elkartasun mekanismo komunitarioak aktibatzea beharrezkoa izango da inor atzean ez uzteko saiakeran. Babes sare komunitarioen helburua da komunitatearen baliabide guztiak aktibatzea zaurgarritasun egoeran dauden herrikideei laguntzeko, gutxieneko bizi baldintza materialak ziurtatzea gure artean bizi den edonori. Horretarako, beharrezkoak dira udaleko gizarte zerbitzuak, eskolak, osasun sistemako langileak, herriko elkartegintza eta elkartasuna aktibatzen zuzendutako gizarte zibil antolatua. Beste behin, hibridazio eskema publiko-komunitarioa eraginkorra izan daiteke zaurgarritasun egoerak detektatu eta laguntza materiala bideratzeko.

ZERTARAKO POLITIKOA

Helburua da, ez dadila inor atzean gelditu. Eta jakinda oso helburu handinahia dela eta municipalismoaren aukerak oso mugatuak direla, afera da nola antolatu gaitzkeen komunitarioki ahalik eta elkartasun ariketa sendoa eta eraginkorra egiteko. Lehen zertarako detekzio eraginkorra da, esku-hartze komunitario sendo batek baino ezin ditzake zaurgarritasun egoerak atzeman. Horretarako, udalak informazio zuzena izan ditzaketan guneekin harreman zuzen eta iraunkorra izan behar du (eskolak, gizarte zerbitzuak, osasun sistema), ahalik eta argazki zehatzena eskuratze aldera. Baliabide instituzional hauek ere motz gera daitezke detekzio lan horretan, eta gizarte zibil antolatuko pertsonen ezagutza beharrezkoa izango da zentzu horretan (era ezberdinetako elkartegintza ari da halako lanetan). Ezinbestekoa izango da koordinazio gune bat osatzea eragile gako hauekin guztiekin, sarearen gaitasun komunitarioa askatze aldera.

Bigarren zertarako da laguntza materiala bideratzea: janari bilketak, arropa bilketak, bestelako oinarrizko beharrezko materialen

Erreferentziako esperientziak

Otxandio

Esperientzia interesgarri bat Otxandiokoa da. Herri txikia izanagatik, interesgarria da bertan osatu den eredua: 11 Lore elkarte sortu zen gizarte zibiletik elkarlan komunitarioa bideratzeko, zeinak ehundik gora herrikide saretzen dituen. Elkarreak harreman iraunkorra du udalarekin eta bien artean baliabide formal eta informalak modu eraginkorrean aktibatzen gaitasuna erakutsi dute. Bi hankako eredu hau eskalagarria izan daiteke dimentsio handiagoko udalerrietan.

asebetetzea, laguntza juridikoa izapide ezberdinekin, etb. Hirugarren zertarakoa da pertsonak komunitatean txertatzen laguntzea. Izan ere, ongizatea zuzenki harremanduta dago komunitatean daukagun lekuarekin: umeei begirako kirol eta aisialdi eskaintza zein festak, baratza komunitarioak eta bestelako ekimenak (baliabide komunitario informalak) gakoak dira segregazioari aurre egin eta ezberdinen arteko harreman komunitarioak sustatzeko. Eta laugarren zertarakoa da justizia sozialaren aldarria lehen lerrora ekartzea. Izan ere, elkartasun ariketa politiko indartsu batek balio behar du desberdintasun sozialak agerian jarri eta aberastasunaren banaketaren alde egiteko. Ahalegin honetan, udalaren lana da baliabide komunitario formalak koordinatzea (gizarte zerbitzuak, osasun sistema, hezkuntza sistema) eta gizarte zibileko eragileekin harreman dinamika iraunkor eta eraginkorra lantzea. Ezinbestekoa izango da, halaber, gizarte zibilaren eragiletza sendo bat baliabide komunitario informalak aktibatze aldera.

Etxebizitza politika

Berdintasunaren erronka

DEFINIZIOA

Bi egitasmo nagusiri eutsi behar diegu etxebizitza politikan:

- Lehena, alokairuaren sustapena: Eraikuntza berrien aurrean etxebizitza hutsen erabilera lehenesteko lan ildo da, hainbat ekimenen bidez gauzatu beharrekoa: etxebizitza hutsen erregistroa, etxe hutsen alokairuaren sustapena, alokairura bideratutako etxebizitzaren birgaitzeen aldeko apustua, etb.
- Bigarrena, etxebizitza publikoaren sustapena: Etxebizitza eskubide subjektiboa bermatze aldera etxebizitza publikoaren parke baten sorrera neurri eraginkorrenetarikoa bat da, jabeago publikoaren parkea baita alokairu duinari bermeetarikoa bat. Egitasmo honekin, gazteen emantzipazio zailtasunak murriztu eta zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen lagun diezaiekegu.

ZERTARAKO POLITIKOA

Etxebizitza politika hirigintza plangintzan eraikin berriak aurreikustera mugatzen zen garaia aspaldi igaro zen. Etxebizitza politikak herriaren hazkundera determinatzeaz gain, herritarren beraien etorkizuna zein bizi baldintzak ere determinatzen dituen heinean, etxebizitzaren ordenamendua gure udal lanaren erdigunera ekartzea dagokigu. Egungo krisiaren testuinguruan inoiz baino onartezinagoa da etxebizitza negozio gisa ulertzea, modu aktiboan zein pasiboan. Etxebizitza eskubide gisa uler dadin neurri efektiboak hartu behar dira. Azken hilabeteetako inflazio altuak eta oinarritzko ondasunen prezioen zein etxebizitzaren prezioen eta hipoteken interes tasen ingoerak euskal herritarren eros ahalmena pobretu egin du, batez ere, etxe zaurgarrietan. Izan ere, etxebizitza desberdinkeria sozialak eragiten dituen ondasun bat da: EAEn, adibidez, biztanleriaren % 6,6k errenta erabilgarriaren % 40tik gorako etxebizitza-gastuak ditu; pertsona pobreen artean, zifra hori seikoiztu egiten da eta % 42,6ra iristen da. Gainera, nabarmendu behar da pertsona pobreen % 37,6k errentaren erdia baino gehiago gastatzen duela etxebizitzan.

Erreferentziako esperientziak

Galdakao

Lau ekimenetan ardatzen den egitasmoa garatu dute: etxe hutsak alokairura bideratzeko programa, zuzkidura biziokiak ($\frac{3}{4}$ gazteei zuzenduta), larrialdi egoerentarako etxebizitzak eta informazio gunea. Lan hau gizarteratu eta bideratzeko etxebizitza bulego bat ere sortu dute.

Baztan

Etxe hutsen alokairua eta etxebizitza publikoak sustatzeaz gain, etxeak birgaitzeko eredu kooperatiboak sustatu, ostatu turistikoak mugatzeko lanketa egin, zein hiri antolamenduan etxebizitza politika justu baterako lanketa txertatu dute.

EAEko biztanle guztientzat, zifra % 5,6 da. Gazteen emantzipazio berantiarren arrazoia ere bada etxebizitza eskurazintasuna: Hego Euskal Herrian gazteak batez beste 30 urterekin emantzipatzen dira, besteak beste, etxebizitza duin baterako sarbidea izateko zailtasunengatik.

Azkenik, lurraren okupazioak lur emankor askoren galera ekarri du azken hamarkadetako hirigintza politiken ondorioz, eta honek badu eragina tokiko garapen jasangarriari dagokionez; baina bestetik, etekin espekulatiboetan oinarritu den etxebizitza politika batek ondorio izugarriak izan ditu pertsonen zorpetze mailan eta gazteen emantzipazio aukeretan.

Emakume etxeak

Berdintasunaren erronka

DEFINIZIOA

Emakumeen esperientzia emantzipatzaileetako bat emakumeen etxeak sortzeko eta abian jartzeko prozesua da, gizarte bidezkoago eta berdinzaleagoa bultzatzeko bidean. Ez da soilik topagune huts bat: sareak sortzeko, aholkularitza jasotzeko, indarkeria matxistarik gabeko bizikidetzak sustatzeko, emakumeen ahalduntzea, parte-hartzea eta presentzia lantzeko, eztabaida, hausnarketa eta aldaketak ikuspegi feministatik pizteko gunea da.

Zentzu honetan, emakumeen ikusezintasuna generoaren arabera gizarte-desoreka eta emakumeen kalteberatasuna sakontzen duen ardatzetako bat izanik, beren komunitate-lana eta parte hartzen duten komunitatearen eraikuntzan espazio propioa (eta egokia) aintzatesten laguntzen dute.

ZERTARAKO POLITIKOA

Sexu-generoagatiko desberdintasuna gizarte-desorekaren arrazoi handienetako bat da gaur egun ere, ez bakarrik lanaren eta ekonomiaren esparruan, baita komunitatearen eraikuntzan ere: ezin da komunitate bat eraiki komunitate horren zati batek ez baditu eskubide eta aukera berberak komunitate horren gizarte-bizitzan parte hartzeko. Are gehiago, kolektibo zaurgarrien artean ere emakume izateak zaurgarritasun horren larriagotzea dakar: emakume etorkinak, adinekoak, gazteak, etxeko langileak, baserritarrak, sexu langileak, lesbianak, presoak, transak, pentsiodunak, aniztasun funtzionala dutenak, alargunak etb.

Horregatik, funtsezkoa da sektore horri bere eremu propioa eskaini eta ahalduntzeko tresnak zein baliabideak, eta komunitatearen bizitzan parte hartzeko eremu propio bat bideratzea, kasu honetan emakumei eta sistema heteropatriarkalak eragindako genero-kalteberatasuna pairatzen duten pertsoneri. Ahalduntze prozesuen bidez emakumeek beren bizitzari eragiten dieten baliabide eta erabakiei buruzko autoritatea eta boterea areagotzea bilatu behar dugu.

Erreferentziako esperientziak

Oñati

Emakumeen ahalduntze beharrez jabeturik, emakumei beraiei zuzendutako espazio bat eraikitzeke prozesua abiatu dute udaletik, eragile feminista eta emakume elkarteekin batera. Helburua, espazio fisiko propio bat eskaintzea baino, genero berdintasunerako bidea urratzeko topagune bat eraikitzea da.

Boteretze prozesu horretan, gobernantza feministaren egitasmoan planteatu dugun bezala, instituzioak erabakigune bateratuak eskaini behar ditu, gobernatze eta kudeaketa espazio mistoak, non emakumeak beraiek erabaki ahal izango dituzten kolektiboaren beharrian eta zaugarritasunari erantzungo dieten egitasmoak.

Erronka --- ekoziakala

Arrisku existentzial nagusietako bat geldiarazteko funtsezkoa izango den hamarraldian gaude: krisi ekologikoa eta bere adierazpen gordinenetakoa den larrialdi klimatikoa. Udalgintzaren agenda politikoaren lehen lerroa eraman behar dugu erronka ekoziakala. Krisi klimatikoa errealitate ukaezina da honezkero: denbora amaitzen ari da aldaketa klimatikoaren ondorio suntsitzaileenak arintzeko. Berotegi efektuko gasen isuriek beranduenez 2025ean jo behar dute goia, eta, hortik aurrera, nabarmen murrizteari ekin. Ebidentzia zientifiko guztien arabera, ezin okerrago ari gara, batez besteko temperatura 2,7°C igoko baita mende amaierarako martxa honetan, segurtasun eremutik oso gora. Datorren legegintzaldiak hartzen duen denboraldia gakoa izango da borroka ekoziakalari dagokionez, eta bada zeregin franko munizipalistentik abiatuta.

Energia komunitate lokalak

Erroka ekosoziala

DEFINIZIOA

Tokiko komunitate energetikoak Europako 2018/2001 eta 2019/944 zuzentarauetan jasotako erakundeak dira, herritarrak ahaldu eta energiaren sektorean aktibitate ezberdinak garatzeko helburua daukatenak. Ekoizpen banatu eta demokratikoa sustatzeko orduan funtsezko erakundeak dira eta EH Bilduren energia estrategiaren garapenerako oinarria dira. Kasurik gehienetan kooperatiba integralak izaten dira, irabazi asmorik gabekoak, bazkide kontsumitzaile, bazkide laguntzaile eta bazkide langileek osatuak. Bazkide kontsumitzaileek izaten dute kooperatiban gehiengoa, eta udalek bazkide laguntzaile gisa parte hartzen dute. Herritarrak, enpresa ertain eta txikiak nahiz tokiko administrazio publikoak daude komunitate energetikoetan parte hartzeraz deituak.

ZERTARAKO POLITIKOA

Energia komunitate lokalak hiru arlo jorratzen dituzte: i. Energia kontsumoaren murrizketa: Bere bazkideen energia kontsumoa murrizteko ekimen ezberdinak garatu ditzakete, hala nola, birgaitze energetikoak, kontsumo elektrikoa jaisteko aholkularitza, etb. ii. Energia ekoizpena: Bazkideen energia beharrak asetzeko ekoizpen berriztagarriko proiektu ezberdinak garatu ditzakete, elektrikoak zein termikoak. Autokontsumo partekatuko instalazio fotovoltaikoak eta biomasan oinarritutako bero sareak dira adibiderik esanguratsuenak. iii. Mugikortasun iraunkorra: Bere bazkideen artean mugikortasun iraunkorra sustatzeko ekintza ezberdinak garatu ditzakete, hala nola, auto partekatua, kotxe elektrikoentzako karga puntuak, etb. Komunitate energetikoez hitz egiten denean, ekoizpen proiektuek hartzen dute protagonismo nagusia, baina hauek besteko garrantzia izan behar dute beste lan ildoek ere, bereziki energia kontsumoa murrizteko bideratutakoek.

EH Bilduko udalek rol aktiboa jokatu behar dute komunitate energetikoen eta hauen lan ildo ezberdinen garapenean, hauek baitira autosufizientzia konektatua egikaritzeko tresna estrategiko

Erreferentziako esperientziak

Ekoizpen elektrikoari dagokionean, komunitate energetiko gehienek autokontsumo partekatuan funtzionatzen dute. Gares izan da aintzindaria eredu honetan. Badira, baita ere, ekoiztako energia merkatu elektrikoan saltzen dutenak, Ekiola eredu kasu. Azken honetan, energia merkaturatzaile bat (Ekiluz) erabiltzen da sortzen den energia bazkideei helarazteko, autokontsumoan ematen den funtzionamendu antzerakoa simulatuz. Azpeitia izan da aintzindaria bigarren eredu honetan.

nagusia. Energia komunitate lokalen bidez, ahalik eta autosufizientzia maila altuena bilatzen dugu eskala lokalean, herritarrak beraien kontsumo energetikoen jabe eginez eta modu kooperatiboan antolatuz. EH Bilduren estrategia energetikoa, autosufizientzia konektatuaren eskeman oinarritzen dena, energia komunitate lokaletatik abiatzen da, hain zuzen ere. Funtsezkoa da EH Bildu gobernuan dagoen udalerrri bakoitzean energia komunitate lokal bat martxan egotea datozen urteetan, eta, oinarri horrekin, Hego Euskal Herri mailan energia komunitate lokalak sartzeko modu eraginkorra aztertu behar dugu, maila lokalean eskuratu ezin daitekeen autosufizientzia nola irabazi aztertzeko.

Hurrengo legegintzaldiak izan behar du autokontsumo energetikoan eta autosufizientzia energetiko lokalean jauzi kualitatibo eta kuantitatibo bat emateko garaia, eta EH BILDU eta gure udalgintza eragile gakoak izango dira langintza horretan.

Politika klimatikoak

Erroka ekosoziala

DEFINIZIOA

Tokiko eremua funtsezko jardun esparrua da larrialdi klimatikoaren aurrean arintze estrategiak diseinatzeko (lurzoru urbanizaezina antolatzea, biodibertsitatea kontserbatzea, etb.), zein klima aldaketak ekarriko dituen ondorioen aurrean egokitzeko estrategiak diseinatzeko. Edozein lurralde klima aldaketara egokitzeko egin beharreko politikak, neurri handi batean, udal mailan bidera daitezkeen ekintzetatik abiatzen dira; tokiko eskumen batzuk funtsezkoak dira helburu horretan (hirigintza plangintza eta hiri diseinua, mugikortasuna, energiaren eta uraren kudeaketa eta eraginkortasuna zerbitzu publikoetan, herritarren parte-hartzea dinamizatzea, etab.), edo, bestela, udal jarduna gainditzen duten eskumen eremuetan beste administrazio sektorial batzuekin koordinatuta lan egiteko beharrezko ekimenen sustatzaile gisa.

ZERTARAKO POLITIKOA

Larrialdi klimatikoari aurre egiteko politiken eremua oso zabala da. Hirigintzan aldaketa handiak jarri beharko dira martxan, besteak beste, hiriguneetan motordun ibilgailuen erabilera mugatzeko. Uraren kudeaketa da beste erroka handietako bat. Ura oinarritzko eta beharrezko elementua da planetaren zein gizadiaren biziraupenerako. Azken seihilekoan bizi izan dugun ur eskasiak uraren erabileraren eta kudeaketaren kontzientzia hartzera eraman behar gaitu. Zalantzarik gabe, azken hamarraldiko ur-horniduraren politika pribatizatzaileek oinarritzko ondasun honen merkantilizazioa ekarri dute. Eta egia da, halaber, krisi klimatikoaren ondorioz ura murrizteak bere ziklo osoa zaintzeko premiazko esku hartzea eskatzen duela.

Basogintza da beste erroka handietako bat: Euskal Herriko hainbat eremu monokultiboz josita dago (pinua eta eukalipto), jasangarria ez den basogintza eredu intentsibo bati lotua. Biodibertsitatearentzat kaltegarria izateaz gain, arrisku faktore larria da klimaren beroketaren aurrean (iazko udako Nafarroako suteak gogoan). Basoak bertako espezieekin birlandatzearen alde eginez, basogintza

Erreferentziako esperientziak

Bakio

Bakioko birgaitze ekologikoa. Lurraldearen bizitasuna eta erresilientzia sustatzeko neurriak hartu ditu (lurzoru ez urbanizagarriaren antolaketa, ingurumen osasungarriaren pedagogia, itsasertzaren kudeaketa jasangarria, etb.). Gainera, udalerrria klima-aldaketara egokitzeko plana osatu da.

Berritxu

Udalak basogintza ekologikoa sustatzeko estrategia egin du (baso erabilera egoki eta dibertsifikatua urratsak emateko), besteak beste herritarren elkarte batekin batera lur sailak erosi, berreskuratu eta kontzientziazio lanak egin dituzte.

eredu jasangarri baten aldeko apustu irmoa egiteko unea da. Horretarako, basoen erosketa publikoa da bide bat, baso-espazio publikoa handituz. Jabe pribatuak basogintza eredu jasangarrietara bultzatzeko kooperatiben esperientzia da beste bide bat, berriki sortu den Tantai baso jabe kooperatiba horren adibide.

Halaber, hiriguneen lurralde antolaketa zorrotzak egiten diren bezala, funtsezkoa da baso eta landa eremuak ere antolatzea. Izan ditzaketen funtzio eta erabilera jasangarri posibleak aztertzea (biodibertsitatearen zaintza, elikagaien ekoizpena, energiaren ekoizpena, abeltzantza, etb.), ondoren horrekiko koherenteak izango diren politika publikoak sustatzeko.

Jantoki kolektiboak

Erronka ekosoziala

DEFINIZIOA

Gure elikadura menpekotasunari aurre egiteko bertan ekoizitako elikagaien kontsumoa sustatzea da udalgintzatik jorratu dezakegun ildo interesgarri bat. Horretarako, jantoki kolektiboetan bertako elikagaiak kontsumitzea sustatuko dugu. Bertako elikagaien premia areagotzeak tokiko elikagaien balio kate osoa sendotzeko baldintzak sortuko lituzke. Jantoki kolektibo publikoak hartuko ditugu lehentasun gisa eta elikadura sistemako parte diren eragile ezberdinekin elkarlanean jantoki kolektiboak bertako elikagaiekin hornitzeko beharrezkoak diren estrategiak aztertu eta garatuko ditugu.

ZERTARAKO POLITIKOA

Elikadura menpekotasuna da herri gisa dugun zaugarritasun handietako bat. Erkidego Autonomoan kontsumitzen ditugun elikagaiek, batzaz beste, 3.000 kilometro egiten dituzte platerera iritsi orduko, elikadura subiranotasuna ez da %5era iristen. Nafarroan, 2007tik 2020ra, 21.000 nekazal hektarea desagertu dira, noiz eta elikadura krisi global baten arriskua larriagotzen ari denean krisi energetikoaren eta klima larrialdiaren eraginez. Nekazaritza intentsiboak eta elikagaiak munduko mutur batetik bestera garraiatzeak esplotazioa, deforestazioa eta lorratz ekologiko jasanezinaz gain, tokian tokiko lurra eta ondare naturalaren gutxiespena eragiten du.

Elikadura sistema propio baten aldeko apustuak eskala ezberdinetako politika publikoak eskatzen ditu, eta eskala lokalean jantoki kolektiboetan bertako elikagaiak kontsumitzearen aldeko hautua da eraginkorrenetako bat. Tokiko elikadura praktikak ez dira kontsumo ariketa soilak, osasunari, ekonomiari edo lurraldeari eragiten baitiote zuzen zuzenean. Bertako produktuez zenbat eta gehiago elikatu, orduan eta gehiago arduratzen da komunitatea bere inguruko landa-lur ondareaz, baserritarrez edo osasunaz. Elikadurari lotutako eragile sare osoa, ordea, atomizatuta dago (baserritarrak, dendariak, eskoletako edo egoitzeko sukaldeak, transformatzaileak,

Erreferentziazko esperientziak

Urduña

Elikadura burujabetzaren aldeko estrategiaren barruan eskola eta adinekoen egoitza hornitzen dituen udal sukaldea martxan dute. Honez gain, tokiko produktuen azokak antolatuta, dendariekin harremana egin tokiko produktuak saldu ahal izateko, herritarren kontzientziazio kanpainak egin izan dituzte.

Arabako lautada

Okiturri lehen sektoreko produktuen eraldaketa eta bereizketarako zentrua da. Nekazaritza eta abeltzaintza-produktuak ekoizleen artean eraldatzeko beharren azterketa batetik eratorritako strategiaren lehen urrats gisa.

ostalaritza, dietistak, medikuak, udalak, landa garapenerako agentziak, etb.). Tokiko ekoizpen eta kontsumo kulturaren eragiteko ezinbestekoa da oinarritzko bateratasuna erdiestea, elikadura sistema osoa aintzat hartzea. Zentzu horretan, aukera bat izan daiteke eskualde mailako elikadura mahaiak osatzea.

Europar Batasunak berak martxan jarritako baserrietik platerera (“farm to fork”) estrategiak hainbat helburu definitu ditu 2030. urteari begira, laborantza ereduari, elikadura sistemari, elikagaien kontsumo jasangarriari, elikagaien soberakinei eta abarri dagokienez. Baliabide publiko guztiak baliatu behar ditugu elikadura sistema propio jasangarri bat sendotzeko ahaleginean.

Ekonomia lokala

Erroka ekosoziala

DEFINIZIOA

Tokiko garapena deitu dugunaren funtzio nagusia pertsonak lurraldeari atxiki ahal izateko baliabideak, errentak, zerbitzuak eta etorkizuna eskaintzea izan da, lurraldeari erroturiko sare produktiboa sustatuz eta pertsonen enplegarritasuna bideratuz. Ekonomia lokalaren sustapenak eskualde eskala abordatzea eskatzen du, Garapen Agentziak jarritz bere zerbitzura.

Bestalde, herri mailan ahalegin berezia egin behar dugu bertako komertzioa babesteko. Plataforma digitalen zein zentro komertzial handien nagusitasun garaian, komertzio lokala ahultzeak, bizitza komunitarioa pobretzen du eta jasangarriak ez diren kontsumo ohiturak indartzen ditu. Moneta lokalak, erakusleho digitalak, artisau ofizioen berreskurapena etb. alternatiba bideragarriak dira.

ZERTARAKO POLITIKOA

Tokiko garapenak hiru zertarako nagusi ditu: i. Lurraldean sustraitutako enpresei laguntzea: Mikroenpresen eta enpresa txikien ahuldade eta zaugarritasunak gaitzeko sareak eta elkarlana, kanpokotasun teknologiko eta ez-teknologikoen sustapena, transakzio kostuen murrizketa, erabakietan irizpide finantzaioez gain beste batzuk barneratzea (lurraldea, kohesioa), kontsumo eta aurrezki/inbertsio autozentratuaren bidezko errefortzu mekanismoak. ii. Enpresak sozialki arduratsuak izan daitezen eragin: Lurraldearekiko ardura eta konpromisoa, proaktibitatea, inplikazio komunitarioa, berrikuntza soziala edo balore aurrerakoiak (elkartasuna, justizia, berdintasuna, zaintza, generoa, ingurumena) eskatuz. iii. Aktibitate ekonomiko berria sustatuz: Gizarte premia berrien inguruan zerbitzu eta produktu batzuk desagertzera joko dute eta berriak sortuko dira, enplegua sortzeko aukerak irekitzen dira beraz (deskarbonizazioa, digitalizazioa, zaintza, elikadura, ekonomia zirkularra, etb.). Azken zertarako honek ekonomia forma berrien garapena modu sistematikoan aztertzeko aukera ematen du, eta hala egin behar da, besteak beste, ekintzailtza soziala sustatuz. Zentzu horretan, azken

Erreferentziazko esperientziak

[Nafarroako mendialdea](#)

Mimukai proiektua eskualdeko garapen eragile ezberdinak batzen dituen topagunea da (dendari, ekoizle, administrazio, enpresa, etb.). Lehentasunezko bi ildo landu dituzte: coworking espazioa eta bertan ekoiztutako produktuak eraldatu, ontziratatu eta kontserbatzeko gunea.

[Hernani](#)

Herri egitasmo estrategiaren barne tokiko garapenean saltoki handien indarraren aurrean zenbait ekimen ondu dituzte eragileekin batera: moneta lokala, online erosketak (eskarate digitala) eta etxez etxeko banaketa zerbitzua.

urteetan Koopfabrikak jorratutako bidea interesgarria da, lantzen jarraitu beharrekoa eta eskualde guztietan sistematizatu beharrekoa.

Beti ez da posible izango eskualde mailako Garapen Agentziak tokiko garapen prozesuen mesedetan jartzea, eskualdeak eta beren errealitateak ere arras ezberdinak dira lurralde ezberdinetan. Argi izan dezagun, halaber, zaila dela udal mailan ekonomia lokala babestu eta sustatzeko estrategia eraginkorrak jorratzea, joera ekonomiko global oso indartsuen mende gaude eta udal eskumenak oso mugatuak dira edozelako esku-hartzeri begira. Hortaz jakitun, praktika xumeenetatik abiatuta, badugu ardurak eskura izan ditzakegun baliabideak aktibatu eta politika publiko zein dinamika komunitarioak esperimendatzeko. Tokiko komertzioaren babes-politikek egungo eredu ekonomikoaren kuestionamendurako eman ditzaketek aukerak azpimarra merezi dute. Herriek, auzoek beharrezko dute komertzio txiki bizi bat, komunitateen bizigarritasunerako funtsezkoa delako eta eredu ekonomiko jasangarriagoetarako oinarri delako.

Ekonomia zirkularra

Erroka ekosoziala

DEFINIZIOA

Hiru ardatz landuko dituen egitasmoa: murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea. Helburu hori lortzeko baliozkoa den egitasmo oro abiatuko dugu: herritarrak arazoaren parte izatetik, konponbidearen parte izan daitezen ahalbidetuko duten egitasmoak.

Hiri-hondakin guztiak, kaleko hiri-hondakinak barne, gaika biltzea eta birziklatzea ezinbesteko neurria da datozen urteetan udalerrri guztietan, materia organikoari irtenbide iraunkorra eman (konposta eta konposta) eta hondakinak murriztearekin batera (jantokietako eta supermerkatuetako elikagai-soberakinei irtenbide jasangarria ematea, kontsumo arduratsuaren pedagogia, etb.). Hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua efektu biderkatzailea duen kontzientziatzeko tresna bikaina da.

ZERTARAKO POLITIKOA

Krisi klimatiko testuinguru bete-betean, hondakinen kudeaketa jasangarria gauzatzea herri erroka nagusietariko bat da gurean. Sortzen dugun hondakin kopuru handia arazo larria da klimarentzat eta gizarte osoarentzat. Zaldibarko zaborteziaren hondamendiarekin, hondakin kudeaketa eredu bat jausi zen. Eredu kapitalistaren arimak, alegia, mugagabeko hazkundeak, eragin zuzena du hondakinen sorkuntzan. Etxeko hondakinak ez dira arazo bakarra, baina ez dugu ahaztu behar hauek azken eskariaren zati oso garrantzitsu bat direla eta, neurri handi batean, ekonomia osoaren materialen zein energiaren kontsumoa eragiten dutela: garraioa, energia, erauzteko sektoreak. Egun hondakinen kudeaketa ingurumen arazo izateaz gain, osasun arazo izatera ere iritsi da.

Hondakinen kudeaketa udal-kudeaketan garrantzi handiko gaia da, datozen urteetan Europako araudira egokitu beharko dena, gainera. Bide luzea egin dugu hondakinen kudeaketa arduratsuan, baina oraindik lan asko dugu egiteko zaborrak kudeatzeko eredu eta helburu iraunkorrak lortzeko. Zentzu honetan, hondakinen

Erreferentziako esperientziak

Ordiziak auzokonpostarekin, gaikako bilketarekin eta berrerabilpena bideratutako Trukegunearrekin garatutako programa esperientzia interesgarria da. Gaikako bilketaren beste adibide bat Lea Artibai eskualdekoa izan daiteke, herritarrekin batera etxez etxe eginiko lanketa baten ondorioz ezarri zena. Honen osagarria da Zero Zabor Hozkailua proiektua, elikagaien xahutzea ekiditeko eta hondakin organikoak murrizteko Udalaren laguntzarekin Hernanin zein Azpeitian ikastetxeek garatutako proiektua, ikasleek kudeatua. Asparrenan, jauzi kualitatibo bat eman dute, biohondakinen tratamendu planta bat gauzatu.

gaikako bilketaz gain, sortzen diren hondakinak, sorlekutik ahalik eta hurbilen tratatzea bilatu behar dugu, batetik, alferrikako garraioaren ondorioak ekiditeko; eta bestetik, hondakinen kudeaketarako azpiegiturak tokiko eskalaren beharrezanean erantzun diezaieten, izan ere, eskala erraldoian egin ohi izan diren azpiegiturek herritarren beharrezanean baino beste interes batzuei erantzun izan diete orain artean.

Zaintzaren erronka

Biztanleriaren zahartzeak modu esponentzian areagotu du zaintzen premia, zeina emakumeen gain gelditu den neurri oso handian. Piramide demografikoaren eboluzioa ez da, ordea, egoera honen kausa bakarra, sare komunitarioen ahultzeak eta politika neoliberal privatizatzaileak tarteko. Gaur, gero eta pisu gehiago duten zaintza lanak familia eremuan gelditzen dira hein handian, eta inoiz baino jende gehiago bizi da bakardadean, bizitza sozial eta harreman afektibo osasuntsuak izatetik urrun, horrek dituen ondorio guztiekin. Ezinbestekoa zaigu zaintza premiei erantzun komunitarioak bilatzea, pertsonen arteko elkarzaintza bizitzaren iraunkortasunaren zutabe bilakatzuz.

Zaintza sare komunitarioak

Zaintzaren erronka

DEFINIZIOA

Zaintza eremu pribatutik, erantzukizun partikularretik, komunitariora igarotzeko egitasmoak ditugu helburu: zaintza ekosistema komunitarioak eta auzozaintza, batik bat. Pertsona ardatz izango duen eredu komunitario batez ari gara, non zaintza beharrezan dauten pertsonentzat komunitateak eskaintzen dituen aukerak artikulatuko diren, beharrezan horiei erantzuna emateko. Autonomia murriztua duten zein laguntza behar duten pertsonen ahalik eta baldintza egokienetan beraien bizitza proiektua garatzen laguntzeko baliabide guztiak (publikoak, beste zerbitzuak eta komunitarioak) aztertu eta beharrezan horien zerbitzura antolatzea da gakoa; mendekotasuna duten pertsonak etxetik edo euren ingurune hurbiletatik ahalik eta gertuen artatzeko, premia bakoitzari egokitzen zaion aukera eskainiz.

ZERTARAKO POLITIKOA

Biztanlegoaren zaharkitzeak zaintza premia berriak ekartzeaz gain, zaintza eredu bera ere birpentsatzeko beharra eragin du. Zaintza eredu berri baten ernamuinak zera izan behar du: zaintza behar duen pertsona erdigunean jartzea, pertsonak zaintza behar izanda ere, pertsona izaten jarraitzen baitu. Are gehiago, zainduak komunitateko kide izateko espazioa eta aukera izan behar du; eta ez zainduak soilik, baita zaintzaileak ere. Are gehiago kontuan badugu zaintza alde biko jarduera dela: zaindua eta zaintzailea, jaso eta eman; eta zaintzaileak emakume aurpegia duela.

Sistema kapitalistak zaintza beharrezan emakumeen eta familiaren bizkar ezarri ditu, eta ahal izan duen neurrian pribatizatu egin ditu. Honek guztiak eraman behar gaitu zaintza zerbitzuen gobernantza eredu berriak aztertzeraz. Ezinbestekoa da erakundeen arteko lankidetzaz, bai eta mendeko pertsona horien ingurune hurbila eta inguruko gizartea ere. Zaintzak dituen ertz edo begirada guztiak era integralean aztertu, konpartitu eta antolatzea eskatzen du zaintza eredu berri baterako jauziak.

Erreferentziako esperientziak

Usurbil

Kolektiboki, zaintza eredu berria eraiki dute, lurraldetua. Iraupen luzeko zaintzen sostengarritasuna bermatu eta, batez ere, herriko beharrezan erantzungo diena; zaintza beharra duten pertsonen nahiak erdigunean jartzeko bokazioa duena eta etxeetara begira dagoena, “etxean bezala” alternatibak edo ekipamenduak kontuan hartzen dituena.

Hernani

Auzozaintza programak hiru erpin ditu: egoera zaurgarrien detekzioa, akonpainamendua eta alor komunitarioa (eragileekin lanketa eta auzozaindari figuren sorrera).

Arreta publiko-komunitarioan sakondu behar dugu: zaintza familia-eremuaren ardura izan ez dadin ekimenak abian jartzen dituzten politika publikoak eginez, zaintza komunitarioa bultzatzeko eta zaintza ekosistema publikoak sortzeko. Komunitatea, justizia soziala eta enpatia oinarri, belaunaldien arteko harremanak indartuz.

Behar sozialak ezin dira soilik administraziotik erantzun, komunitatearen, boluntario sareen, beharra dago. Zaintzak gizarte kohesioa eta komunitate sena eraikitzeko prozesu bat behar du izan. Eremu soziala, boluntarioak, bizilagunak, herrikideen harremanak, borondatek datorren zaintza integratu behar da oraingo sisteman.

Zaintzaileen zaintza

Zaintzaren erronka

DEFINIZIOA

Bi dira egiten ditugun proposamenak: zaintzaileen kooperatibak eta zaintzaileen zaintzarako egitasmoak:

- Zaintzaileen kooperatiben bidez, zaintza lanetan jarduten duten emakume horien egoera soziolaborala duintzeko pausuak ematea bilatzen dugu. Izan ere, erakunde publikoek esleitzen dituzten kontratuetan, enpresa handien helburua behinena mozkinak lortzea da, eta hau langileen prekarizazioaren kontura egin ohi da.
- Zaintzaileen zaintza egitasmoen bidez, ordaindutako zein ordaindugabeko zaintzaileak babesteko programak martxan jarriko ditugu. Kolektibo zaugarri honen ahalduntzea, kohesioa eta babes kolektiboa lortzeko.

ZERTARAKO POLITIKOA

Herri honek zaintza krisi bat bizi du: zaharkitzearen zein joera individualisten eraginez, gero eta zaintza beharrian handiagoak dituen gizarte batean bizi gara, non, gainera, zaintza lanak pribatizatu eta emakumeen gain ezarri diren. Emakume horien (gehienetan migranteak, prekarizatuak eta egoera zaugarrian dauden pertsonak) egoera babestu eta iraultzeko politikak egitea ezinbestekoa da. Zaintza krisiaren aurrean zaintza duinak eta kalitate onekoak bermatzeko lan egin behar dugu.

Zaintza sistema batek bidezkoa eta berdinzalea dela bermatu beharra du, bai hartzaileentzat eta haien ingurukoentzat, zein zerbitzua ematen duten pertsonentzat. Hau da, zaintzak demokratikoak izango dira soilik bi aldeentzat bizimodu jasangarrian eskaini badaitezke; eta bide honetatik soilik bermatu ahal izango dute instituzioek zaintza duina eta kalitate onekoa eskaintzen dutela.

Eremu horretan, bereziki garrantzitsua da zaintzaileak ahalduntzea.

Erreferentziako esperientziak

Hernani

Zaintza lanetan dabilzan pertsonen (bidelagunen) inklusioa eta lan baldintzak hobetzeko irabazi asmorik gabeko Maitelan kooperatiba bultzatu dute. Lanaldiaren % 15 formaziora dedikatzen dute, euskaran indar berezia jarritz.

Elorrio

Beste erakunde eta eragile batzuekin sarean, batetik, zaintza lanen eta horien erantzukizunen banaketa erantzukidea sustatzeko: sentsibilizazio eta prestakuntza kanpainak eta berariazko ikerlanak, egin dituzte besteak beste; eta, bestetik, mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten langileei informazioa, tresnak eta baliabideak emateko programak martxan jarri dituzte.

Zaintza sektorean lan egiten duten pertsonak, gehienetan irabazi asmoa duten enpresa handien bidez, baldintza eskasetan egiten dute lan. Hala, lan baldintza ekonomikoengatik, zein lananaren nolakotasunagatik, zaintzaileen kolektiboa prekarizatu, migrantea eta zaugarria izan ohi da. Beharrezkoa da zaintzaileak babesteko tokiko ekimenak abiaraztea.

Bide bat zaintza sektoreko langileen tokiko kooperatibak antolatzea da, erabakiak demokratizatuz langileak ahalduntzeko, eta, zaintzak demokratizatuz, zerbitzu publikoak esleitzen dituzten enpresen helburua irabazi ekonomikoak izatea ekidinez; azken finean, kolektibo feminizatu, prekarizatu eta zaugarria indartuz. Zaintza langileen kooperatibak eratzeak eta zaintzaileen zaintza egitasmoek, zaintza lanak duintzea baino eragin zabalagoa du: konfidantza eremuak sortuz eta pertsonak ahaldunduz, kolektiboaren beraren eta kide direnen egoera zaugarriak babesteko mekanismoak sortzen ditu, besteak beste, indarkeria matxista edota lan abusu kasuak.

Erro nka

kulturala

Azken hamarraldietako euskalduntze prozesuaren agorpena bizi dugu. Adierazle hainbatek dioskue etorkizuna ez dagoela bermatuta, are atzeraldi baterako arriskua handia dela. Izan ere, erabilerak atzera egin du hainbat udalerritan (nabarmen arnaguneak diren hainbatetan), euskararenganako atxikimendua lausoa da hainbat gizarte sektoretan, euskal kulturaren transmisioan etenak agerikoak dira, eta, oro har, ortzemuga nazional-kultural partekatu baten falta dakusagu XXI. mendeko Euskal Herrian. Gehitu horri euskararen kontrako erasoaldi politiko eta judiziala. Udalgintzak mugimendu euskaltzaleak behar duen arnasberritzearen eragile behar du datorren legegintzaldian, bi zeregin nagusi geure gain hartuz: euskal kulturaren transmisioa globalizazio digitalaren aroan eta euskal kulturaren sustapena kultura emantzipatu eta emantzipatzaile gisa.

Kultur bilguneen sarea

Erroka kulturala

DEFINIZIOA

Kultur bilgunea herriko eragile kulturalak biltzen dituen espazioa da. Bilgune honek herriko bizitza kulturala dinamizatzea du helburu eta forma ezberdinak har ditzake. Eredu garatuenetan, bilguneak izaera juridiko propioa har dezake, kooperatiba integralarena kasu. Halako bilguneek azpiegitura kultural publikoak kudeatu ditzakete eta herriko eskaintza kulturalaren parte handi bat ere bai. Udalek bazkide laguntzaile gisa har dezakete parte bertan, langileek bazkide langile gisa eta herritarrek bazkide erabiltzaile gisa. Ereduak aldaera ugari izan ditzake halere, herriaren tamainaren eta kulturgintza sarearen nolakotasunaren arabera.

Azpeitia aintzindaria izan da eredu honen garapenean, eta azken urteetan molde ezberdinetako kultur bilguneak antolatu dira hainbat herritan. Egitasmoa bilgune horien saretzea litzateke.

ZERTARAKO POLITIKOA

Beste behin ere, eredu publiko-komunitarioaren eskeman kokatzen gara, kasu honetan udalaren eta kulturgintzaren arteko hibridazioa bilatuz. Kultur eragileak herriko bizitza kulturalaren eragile protagoniko bilakatzea bilatzen dugu. Udalaren papera da baliabideak eskaintzea, funtzio publikoa bermatzea, eta eragile ezberdinen arteko elkarlanaren erraztaile izatea. Kultur bilguneen eredu bat edo beste izan, beraien arteko sare nazionala artikulatzeak jauzi bat emateko aukera irekiko luke: euskal kulturgintzari udalgintzak egingo liokeen ekarpen kualitatiboa litzateke.

Halako sare baten parte liratekeen kultur bilguneek hiru zertarako nagusi izan ditzakete, eta, garapen mailaren arabera, zertarako bat edo gehiago har ditzakete beren gain. Oinarrizko maila litzateke herriko (zein eskualdeko, kasuan kasu) agenda kulturala bateratu eta kultur eragileen elkargune gisa funtzionatzea. Elkargune hauen helburu behinena litzateke euskal kulturari plazak eskaintzea, euskal

Erreferentziako esperientziak

Ezbairik gabe, Azpeitiako Kulturaz kultur kooperatiba erreferentzia argia da. Herri bakoitzeko ezaugarri eta tamainaren arabera, egindako ibilbidea inspiratzaile gerta dakiguke kasu askotarako.

arte adierazpen ezberdinen kontsumoa sustatzea. Bigarren maila litzateke kultur sorkuntzan parte aktibo izatea. Horretarako modua litzateke Udalbiltzak sustatutako Geuretik Sortuak egitasmoan parte hartzea, egitasmo honen dimentsioa eskalatuz, eta horrela, sorkuntzara emandako zirkuitu kultural nazional sendo bat osatuz. Hirugarren maila litzateke kultur bilguneak proiektu kulturalen inkubadorak bilakatzea, era ezberdinetako egitasmo kulturalak martxan jarritz (Azpeitian Dinamoa sormen gunea sortu den bezala).

Azken urteetan egin den bidearekin badugu nahikoa oinarri kultur bilguneen sarea osatu eta euskal kulturaren transmisioari eta kultura burujabeari bultzada emateko. Sare honek aukera emango luke euskal kulturgintzaren zirkuitu egonkor bat sustatzeko, euskal herrien artean esperientzia kulturalak elkarbanatzeko eta batzuen eta besteen sorkuntza lanekin elkarrekin ikasteko.

Hezkuntza ekosistema kooperatiboak

Erro
nk
a
k
u
l
t
u
r
a
l
a

DEFINIZIOA

EH Bilduren hezkuntza proposamenean jasotzen denez, sistema deszentralizatu baten alde egiten dugu, ikaslea jarriz erdigunean eta ikasleak behar duen heziketa prozesuaren nolakotasunean jarriz arreta. Hezkuntza bizitzaren dimentsio guztietara hedatzen den prozesua izaki, funtsezkoa da hezkuntza formalaren eta ez formalaren arteko uztarketa. Beraz, ikastetxeen hormak gainditu eta herriarekin bat egiten duten hezkuntza proiektuek behar dute hezkuntza sistemaren oinarri eta abiaburu. Halako hezkuntza proiektuak dituzten ikastetxeak ekosistema kooperatiboetan aurkituko dira beraien artean zein herriko elkartegintzarekin eta udalarekin berarekin, elkarlanean herri mailako proiektu hezitzaileak osatzeko. Ekosistema horien organo nagusietako bat Udal Hezkuntza Kontseilua izango da.

ZERTARAKO POLITIKOA

Hezkuntzatik herri oso bat pentsatu daiteke, hezkuntza funtsezko oinarria baita eraldaketarako; euskal nazio eraikuntzan lehen mailako garrantzia aitortu izan zaio historikoki eta ez da kasualitatea. Egun, euskal hezkuntzagintza momentu berezian dago. Fase berri bat irekitzeko beharra eta gogoia sumatzen da, eta uste partekatua da herri mailako hezkuntza proiektuak behar ditugula, ikastetxeak gainditzen dituztenak, ikastetxeen arteko kooperazioa sustatzen dutenak eta hezkuntza formala eta ez formala batzen dituztenak. Konkrétuki, bi gizarte erroka handiren alde asko egin dezakete hezkuntza ekosistema kooperatiboek: klase eta jatorriagatiko segregazioa eta euskalduntzea. Izan ere, komunitateen gizarte kohesioa lantzeko jokozelai paregabea eskaintzen digute halako ekosistemek.

Hezkuntza ekosistema kooperatiboen organo nagusietako bat Udal Hezkuntza Kontseiluak lirakeke, non ikastetxeetako ordezkariak, udal ordezkariak eta tokiko elkartegintzaren ordezkariak batuko lirakekeen. Kontseilu hauek hezkuntza formalari lotutako hainbat

Erreferentziazko esperientziak

Ez dira gutxi azken urteetan intentsitate ezberdinez bada ere halako ekosistemetara hurbiltzeko ahaleginak egin dituzten udalak. Hernaniko hezkuntza mahaia eta Oretetako prozesu komunitarioa har daitezke esperientzia aurreratu gisa.

gai landuko lituzkete, hala nola, eskola eskaintzaren banaketa, ikasleen eskolaratze orekatu baterako neurriak, etb. Kontseilu hauen lana izango litzateke, halaber, herri proiektu hezitzaile baten atal ezberdinak jorratzea, hala eskolaz kanpoko eskaintza hezitzaile integratu eta integral bat nola kurrikulum lokala, etab.

Euskal Erkidego Autonomoan, halako Udal Hezkuntza Kontseiluek lege babesia izango dute lehenengo aldiz, eta beraz, aukera berriak irekitzen dira orain arteko herri hezitzaileen esperientziei bultzada handi bat emateko. Kontuan izan dezagun datozen urteetan eskola mapa goitik behera berrantolatuko dela jaiotza tasaren beherakada tarteko. Mehatxu bat dena (haustura sozial baterako arriskua) aukera bihurtzeko abagunea daukagu. Izan ere, interes publikoarekin konprometitutako ikastetxeen arteko herri mailako kooperazioak euskal hezkuntzagintzaren fase berri baten oinarria jarriko luke, historikoak izan diren zatiketak gaindituz eta ortzimuga berri bat marraztuz.

Euskararen arnasmuneak

Erroka kulturala

DEFINIZIOA

Gaur, hamarraldiak iraun duen euskalduntze prozesuaren agorpena bizi dugu. Azken kale erabilera neurketak euskararen erabileraren beherakada eten dela adierazi duen arren, badira kezkarriak diren hainbat datu. Tartean, euskararen arnasmune diren hainbat udalerrietan, faktore askotarikoak tarteko, erabilera izaten ari den beherakada. Euskara arnasmuneak galtzen ari da, eta hori ikuspegi soziolinguistikotik oso kezkarria da. Gehitu horri euskararen kontrako eraso judizialak eta, Nafarroaren kasuan, zonifikazioak sortzen dituen kalteak.

Horregatik, udalerrietan hizkuntza politika aurreratuak garatzeko ahalegina biderkatzeko unea da. Bide horretan, erreferentzia gisa hartzen dugu Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak aurkeztu zuen Hizkuntza Eskubideen Protokoloaren Udala Garapena.

ZERTARAKO POLITIKOA

Biztanleria, trinkotasuna eta pisua galdu dituzte eremurik euskaldunenek. Horren ondorioa da geroz eta jende gehiagok ahalegin handiagoa egin behar duela euskaraz egiteko. Eta arnasmuneez garrantzi handia dute; ez bakarrik kualitatiboa, baita kuantitatiboa ere. Oinarrizkoena da kontzientzia hartzea: Erabili ditugun eskemen arabera, itxaropena zegoen euskalduntze prozesu azkar xamar bat aurrera eramatekoa. Ez zen gure eskemetan sartzen atzera egin genezakeenik gure betiko guneetan, eta gertatzen ari da.

Ingurune horietan euskararen erabilerak eta trinkotasunak atzera egin badute, gehienbat arrazoi sozioekonomikoengatik, urbanistikoengatik eta demografikoengatik egin dute atzera. Orduan, alderdi horiek kontuan hartu behar dira, eta, horrekin batera, tokian toki egokiak diren hizkuntza politika argi eta sendoak aplikatu, besteak beste:

Erreferentziako esperientziak

Zaldibia

Kultur aniztasun handia duen hezkuntza komunitatean euskararen arnasmune den herria izaten jarraitzea helburu duen egitasmoa: euskaraz bizitzen jarraitzea eta era berean euskara ez dakiten familiekiko komunikazioa eta giro abegikorra bermatzea du helburu. Kulturartekotasunarekin eta komunikazioarekin lotutako arazoak mahai gainean jarri eta irtenbide praktikoak elkarrekin landu; elkar entzun eta akordioak bilatzea.

- Udalak gainontzeko instituzioekin harremana euskaraz gauzatuko du.
- Haur eta gazteen aisialdi eskaintza osoa euskaraz eskainiko du.
- Gainontzeko kultur eta aisialdi eskaintza euskaraz izango da, gutxienez herriko euskara ezagutza tasaren bezainbesteko kopuruan.
- Udalak herritarrei administrazioarekin euskaraz aritzeko eskubidea bermatuko die, besteak beste: lehen hitza euskaraz jasotzeko eskubidea, prozedura administratibo osoa euskaraz garatzeko eskubidea, udal zerbitzuak euskaraz jasotzeko eskubidea.